## 70.9. Kalkula dezagun aztarna ekologikoa

Galdera bakoitzetik bat aukeratu eta gehitu lortzen dituzun puntuak. Zure ohiturak jasangarriak diren ala ez ikusiko duzu

**1. Zure herrialdean ekoiztutako elikagai freskoak kontsumitzen al dituzu?**

[2] Bai, ahal dudan guztietan.
[10] Ez zait axola produktu ontziratuak eta urruneko herrialdeetan ekoitzitakoak erostea.

**2. Normalean, animalietatik lortutako produktuak (haragia, arrautzak, esnea...) kontsumitzen al dituzu?**

[50] Ez, inoiz ez; barazkijalea naiz.

[130] Astean, inoiz haragia kontsumitzen dut, edo, bestela, barazkijalea naiz, eta arrautzak eta esnea ere hartzen ditut.

[150] Bai.

**3. Zein garraio-mota erabiltzen duzu ikastetxera joateko?**

[3] Oinez edo bizikletaz joaten naiz beti.

[5] Garraio publikoa erabiltzen dut.

[70] Autoa hartzen dut.

**4. Oporretara zoazenean...**

[85] Urtean, gutxienez, bidaia bat egiten dut hegazkinez.

[20] Noizean behin hartzen dut hegazkina.

[10] Ia inoiz ez dut hegazkinik hartzen.

**5. Zure etxean energia berriztagarria erabiltzen duen ekoizpen-sistemarik ba al da?**

[45] Ez, erabiltzen dugun energia sarekoa da.

[5] Bai, elektrizitateak jatorri berriztagarria du.

**6. Kontsumo txikiko bonbillak erabiltzen al dituzu?**

[15] Ez

[5] Bai

**7. Behar ez direnean aparatu elektrikoak erabiltzen al dituzu?**

[15] Batzuetan, piztuta uzten ditugu argiak, inor ez egon arren.

[5] Ez, inoiz ez.

**8. Zure etxea beroak ez ihes egiteko prestatuta al dago?**

[40] Ez, beroak ihes egiten du, leihoa itxita egon arren.

[15] Bai, kristalak bikoitzak dira eta itxita izaten ditugu.

**9. Berogailua behar baino gehiago erabiltzen al duzu?**

[10] Bai, batzuetan bero gehiegi egiten du.

[5] Ez, nahiago dut ahal dudan guztietan berogailua aurreztu eta arropa gehiago janztea.

**10. Hondakinak murriztu edo berriz erabiltzeko neurririk hartzen al duzu?**

[30] Ez.

[10] Bai, papera gordetzen dut beste aldetik erabiltzeko, eta beirazko ontziak berriz erabiltzen ditut.

**11. Gaikako bilketarako edukiontziak erabiltzen al dituzu?**

[70] Ez.

[65] Bai, baina batzuetan bakarrik.

[55] Bai, plastikoa, metala, papera eta beira bereizten ditut.

[50] Bai, eta materia organikoa bereizten dut.

**12. Dutxatu ala bainatu egiten zara?**

[15] Egunero bainatzen naiz.

[10] Astean behin edo bitan bainatzen naiz.

[5] Egunero dutxatzen naiz.

Amaierako puntuazioa

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | PUNTUAK GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | | | |